



LIBURUA

Poesia da



BATZUEN AMETSAK BERTZEEN ZELAI ZULATUAK DIRA

PAMIELA, 2018

IDAZLEA:

HASIER LARRETXEA

ARRAIOZ, NAFARROA GARAIA, 1982

IGOR ESTANKONA

Hasier Larretxearen poesia ez dakit zaidan lirikoa, edo filosofikoa. Ez dakit idazten duen hotzean, edo sentimenduen berotasunak gidatzen duen bere ele apaindua. Intuitiboki irakurtzen hasi, eta orduantxe aurkitu diot nik gustua *Batzuen ametsak bertzeen zelai zulatuak dira* honi (Pamiela, 2018) zeinak ez baituen egiaren beharrik, memoriaren beharrik, helduleku beharrik: “Adarretan kiribildurik/ sustraitu genuen bidegurutzetik haraindi/ joaterik ez zutenen absentiaren lotsaizuna”.

Irrazionala da. Kalkulatua da. Kontraesanean bizi da Larretxea (Arraioz, 1982). Zorrotza da hitzarekiko, surrealismoaren mugekiko. Poemategia sentazioen biltegi bat da, aliterazioz eta antitesiz eta zentzu bikoitzez aberastutako leku ia fisiko bat: han isurtzen dira baz-

tandarraren mamuak, heriotza eta ahaztura. “Galdutako aukera bakoitzak/ zulo sakonago bat irekitzen du/ memoriaren labarrean,/ ostertzaren ikuspegian”.

Baztan eta Madril eta ezinbestean mundu gero eta txikiago hau nahasi zaio Larretxeari arimako zelai mugagabeekin. Izan ere, poesia erraza eta efektista bilatzen badituzu hau ez da zuretzako liburua. Batzuetan agian zehaztasuna falta zaio, egitura batzuk dauzka duda-mudazkoak eta hitz zenbait hobe hauta zitzakeen, baina ukazina da testuen magnetismoa, barne-korronte baten antzera liburua gurutzatzen duen tristezia gozo hori: “Zeri besarkatu heldulekurik ez badago// Iraungi da ahanztura azken hatsaren tunelean./ Iluntasunean baino ezin dugu elkar ikusi./ Itzalpetako dantzaz errarian, ifrentzuen maskara(d)an./

Kandelen argitasun-ahurrean// Perfilez baino ez dakusagu/ errealitateak jaurtikitako txanpon herdoildua”.

Larretxearen erreferentzia eta heldulekurik gabeko hausnarketa atemporalak, errepikapenaren puruz, musika antzeko bat bihurtzen dira, letania bat ez dena zertan literalki ulertu. Horrek ahalbidetzen dio hats luzeko poemei arazorik gabe eustea, ideia batetik bestera modu lokabeen salto egitea. Horrek bihurtzen du *Batzuen ametsak bertzeen zelai zulatuak dira* interesgarri eta gustagarri. Ez dut esan bihotz-hunkigarri, ezta zirraragarri. Baina liburu honek badauka atrebentzia, eta konpromiso bat agertzen du poesiarekin. Poesia bada hitzei esanaraztea orain arte esan ez dutena –ordena aldatuz, esanahia sublimatuz–, hau poesia da. ●